

# Antxiñako fotografixia



## Asentzioko ermitta zaharra eta Murgialdaiko mahastuixak

**Asentzioko** ermitta oraintxe barrizketakotan ei dira. Hori dala-eta, egun honeitan mende honen hasierakua dala irukurri dogu nunbaiten. Egixa esateko, 1906. urtian ermitta hori lekuz aldatu egin zan, baiña izatez askoz lehenagokua da. I. Zumaldek dixuenez, 1505. urtera orduko agerketan ei da papel zaharretan; jatorrizko kokalekua **Murgialdai** baserrixaren aldamentxuan eukan eta baseliza horretako erretablo plateresko politta 1555ian moldau eben **Borgoñako Felipe** artistiak **Murgialdaiko Andresen** enkarguz. Hasieran, gaiñera, **San Andresen** izenian jaso zan, eta santu horren bizitzako pasadizuak ikusten dira erretabluan, baiña XVII. gizaldixaren azken aldera Asentzioren adbokaziñua emun otzain. Oraingo parajera eruan zanian, San Andresen imajiña haundixa sakristixara erretirau zan eta haren orde z benediktinetako monja batek 1913an pinttautako *Asentzia*o ifiñi zan altara-erdixan.

Ba, gaurko fotografixa hau, aittatu dittugun gauza batzuk argiketako, oso egogixa da. Berezaio ingurutik atarata egongo da eta Murgixa auzuaren zati bat erakusten dosku: ezkerreko baserrixa **Murgialdai** da, baiña ez orain dakon itxuriarekin; metro batzuk eskumarago **Asentzioko ermitta** agiri da antxiñako kokalekuan; ermitta azpizan eta erreka kontran **Murgiko errotia**, aldamenian *karetegixa* (karia gordeteko txabolía) dakola; goraguan **Jargikua**, eta atzian, erdi-ekzutuan, **Estenagakua**. Murgialdaiko etxe azpizan, **Aldaixa** izeneko erripan, mahastui ederra somau geinke. Sasue haretan Oñatiko baserri batian baiño gehixagotan egitten ei zan *txakoliña*, eta Murgialdaiko inguru horreitan orain dala hogei bat urtera arte egon ziran mahats-aixenak. Murgialdai baserrixa be mende honen hasieran barriztau zan; ordutik eukiko dau, San Andresen kurtze eta guzti, ermittan zan ateburu dotoria. Argazkixonek, ba, ixixa ehun urte izango dittu.

J.E.

Fotografixa Martin Zuluetak ataratakua da eta argibidiak Iñaxio Galdosek emun dosku.

### IRAZOLA

**Indusketak**  
**Lur-mugimenduak**



San Lorenzo, 7 - 3. Ezk.  
OÑATI Tfnoa: 78 25 97

### M<sup>a</sup>. CARMEN

**OSASUN ETA EDERGINTZA**

- ELEKTROLOGIA, Depilazio elektrikoa, Blend Sistema
- DEPILAZIOA, Erabilera bakarreko Argizari BERO zein EPELAREKIN
- LIFTINGA
- ELEKTRO ESKULTURA
- AMERIKAN WORLD Gimnasia aulkia
- GORPUTZ TRATAMENDUAK
- MESOTERAPIA-LOHIAK



San Lorenzo, 4 behea • Tfnoa: 78 08 86 - 78 14 07 (Etxekoa) OÑATI